BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4812

EBAZPENA, 2014ko azaroaren 4koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, 2013ko ekitaldian Nazio Batuen erakundearen sistemako nazioarteko erakundeentzat eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzat emandako laguntzak luzatzeko eskabideak ebazten dituena; erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei bekak emateko dira aipatu laguntzak.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2013ko abenduaren 20ko Ebazpenaren bitartez (urtarrilaren 13ko EHAA, 7. zk.), Nazio Batuen erakundearen sistemako nazioarteko erakundeentzat eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzat 2013rako laguntzak eman ziren, zertarako-eta erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei bekak emateko.

Ondoko arauetan xedatutakoa aplikatzen da: otsailaren 13ko 22/2007 Dekretuaren 3. artikulua, dekretu horren bidez erregulatu egiten dira Nazio Batuen sistemako nazioarteko erakundeei eta horiei atxikitako pertsona juridikoei esleitzen ematen zaizkien laguntzak, zeintzuen helburua baita nazioarteko erakunde horiek herrialde txirotuetan garatzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten borondatezko lankideei bekak ematea (2007-03-12ko EHAA, 50. zk.); eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren 2013ko azaroaren 12ko Ebazpeneko 2.2 artikulua, ebazpen horren bitartez 2013ko ekitaldirako laguntza horietarako deialdia egiten da (azaroaren 15eko EHAA, 218. zk.); luzapenetarako zenbatekoa ez da izango 192.000 eurotik gorakoa.

Ildo horretan, otsailaren 13ko aipatu 22/2007 Dekretuko 2.3 artikuluaren bitartez zera ezartzen da: lankideek egonaldia beste urte batez luzatu nahi badute, izango dute hartarako aukera, betiere lehen urtea amaitu baino bi hilabete lehenago komunikatzen badute asmo hori.

Jarraian aipatzen diren arauetan xedatutakoarekin bat etorriaz: otsailaren 13ko 22/2007 Dekretuko 2.3 eta 8.4 artikuluak; Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta erregulatzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legeko 11.2 artikulua (2008-07-10eko EHAA, 131. zk.); eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Antolaketa eta Funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuko 11.1 artikulua. Eta aurkeztutako eskabideak aztertu ostean:

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2013ko abenduaren 20ko Ebazpenaren bitartez 2013ko ekitaldirako emandako laguntzak luzatzeko eskabideak baiestea; laguntza horiek honako hauentzat dira: Nazio Batuen sistemako nazioarteko erakundeentzako eta horiei atxikitako pertsona juridikoentzako, betiere nazioarteko erakunde horiek herrialde txirotuetan garatzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten borondatezko lankideei bekak emateko. Ebazpen honetako eranskinean jasotako erakundeei ematen zaizkie baietsitako laguntza-luzapen horiek, bertan zehazten diren zehaztapen eta zenbatekoekin, eta ematen diren egunetik harako urte baterako.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Ebazpen honetan ez da bukatzen administrazio-bidea, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio, hain justu ere ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik harako hilabeteko apearen barruan. Gora jotzeko errekurtsoa jarri eta hiru hilabete igaro ondoren ebazpenik eman ez bada, ezetsi egin dela ulertuko da, eta administrazioarekiko auzietako bidea zabalik geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 4a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

I ERANSKINA

NAZIO BATUEN SISTEMAKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEEI 2013RAKO LAGUNTZETARAKO LUZAPENAK ONARTUTAKO ESKARIAK

Espediente zk.	Erakunde eskatzailea	Lankidea	NB Erakundea	Herrialdea	Kopurua €
NBE-2013BA/0002	Unesco Etxea	Ana María Gómez Escobar	UNESCO	Namibia	15.451,36
NBE-2013BA/0003	Unesko Etxea	Isabel Inguazo Ortiz	UNESCO	Samoa	15.740,39
NBE-2013BA/0004	Unesco Etxea	Joana Pinillos Bringas	UNESCO	Mexiko	15.782,16
NBE-2013BA/0005	Unesco Etxea	Joana Vitorica Onaindia	UNESCO	Indonesia	15.741,46
NBE-2013BA/0006	Unesco Etxea	Maitane Vilela Rodríguez	UNESCO	Vietnam	15.451,36
NBE-2013BA/0007	Unesco Etxea	María Íñiguez de Heredia	UNESCO	Kamboia	15.451,36
NBE-2013BA/0009	UPV - Master en Cooperación Internacional Descentralizada	Evora Barreiro Pereida	PNUD ART	Nikaragua	15.000,00
NBE-2013BA/0015	UPV - Master en Cooperación Internacional Descentralizada	Akhnaton Ibáñez Rodríguez	PNUD	Dominikar Errepublika	15.000,00
NBE-2013BA/0017	UPV - Master en Cooperación Internacional Descentralizada	Yusune Kanae	FAO	Bolivia	15.000,00
NBE-2013BA/0019	UPV - Master en Cooperación Internacional Descentralizada	Sara Luances Fernández	PNUD ART	Ecuador	15.000,00
NBE-2013BA/0021	UPV - Master en Cooperación Internacional Descentralizada	Bárbara Rodríguez Battle	PNUD ART	Bolivia	15.000,00
NBE-2013BA/0022	UPV - Master en Cooperación Internacional Descentralizada	Javier San Vicente Maeztu	FAO	Kolonbia	15.280,47

II ERANSKINA

NAZIO BATUEN SISTEMAKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEEI 2013RAKO LAGUNTZETARAKO LUZAPENAK
EZ ONARTUTAKO ESKARIAK

Espediente zk.	Erakunde eskatzailea	Lankidea	NB Erakundea	Herrialdea	Ukapenerako zioa
NBE-2013BA/0008	UPV - Master en Cooperación Internacional Descentralizada	Allyn Alda Kangleon	ONU Mujeres	Dominikar Errepublika	Aurrekontu agortua
NBE-2013BA/0016	UPV - Master en Cooperación Internacional Descentralizada	Ana Pérez Carrera	PNUD	Dominikar Errepublika	Aurrekontu agortua
NBE-2013BA/0017	UPV - Master en Cooperación Internacional Descentralizada	Borja Odriozola Pacho	PNUD ART	El Salvador	Aurrekontu agortua

EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA
2014ko azaroaren 11, asteartea
215. zk.